# TXORIAK


Testua: NATACHA ORTEGA

Irudiak: LUCÍA FRANCO

Itzulpena: JOSEBA SARRIONANDIA



Azala kartoi gogorrean. 22 x 22 zm. 36 or. 13 €.


FINALISTA ALBUM IRUDIDUNAK EGITEKO NAZIOARTEKO XIII. COMPOSTELA SARIAN


**Txoriak** (euskara)
ISBN 978-84-9172-212-0. Egile lanak.

**Pájaros** (gaztelania)
ISBN 978-84-1343-061-4. Obra de autor. Primeros lectores.

**Paxaros** (galegoa)
ISBN 978-84-1343-060-7. Demademora.


Ume-txoritxoak,
larruazal gutunak...
Haien hitz argiak
paper dantza leunak.

Abentura bila,
jolas, hamaka, kanta...
Airez aire hegan doaz
hegaz zorionean...

«Txoriak», haurrak protagonista egiten dituen poema-abestia da. Enparantza, parke edo arboladiak askatasun eta sorkuntza espaziotzat hartzea eta jolastea proposatzen die umeei.
Etxea eta jolasa umeak elkartzeko guneak izango dira imajinazioaz aparteko azpiegiturarik gabe.

Poesiaren bidez ziudadania eraikitzeko ideiarekin, Natacha Ortegak ekintza urbano lez sortu zuen obra hau, "Katu iletsua" deitu zen proiektu baten barruan, denon lekuak bizileku bihurtzearen alde. Testua sinplea da, haurtzaroko ametsei kantua, eta Lucía Francoren ilustrazioek minimalismo grafikoa azpimarratzen dute: irudiak oso naturalak dira, gorri eta urdin koloredun paleta txiki batekin pintatzen dira hegazti moko eta hegaldun pertsonaiak.

Album Ilustratuaren Nazioarteko Compostela XIII Sarian finalista izan den poema musikal hau, QR kodeekin osatzen da abestiaren hiru bertsioetara iristeko: euskaraz (Dana Moya, ahota; Danieuris Moya, egokitzapena), galizieraz (Paco Nogueiras) eta gaztelaniaz (Dragón Dorado). Hizkuntza desberdinok bat egingo dute olerkian eta erritmoan liburu hau irakurtzean edo kontatzean eta abestia kantatzean.










- **Gaia:** haurrak eta jolasa espazio publikoan.
- **Adin egokia:** 3 urtetatik aurrera.
- **Nabarmentzekoa:** Album Ilustraturaren Nazioarteko Compostela XIII Sarian finalista izan den poema musikal hau osatzeko, liburu musikala (testua gehi abestia), QR kodeak hiru hizkuntzatako hainbat bertsio musikaletara iristeko.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/txoriak-eusk

## Natacha Ortega

(Mendoza, Argentina, 1981)
Idazlea, abeslaria, komunikatzailea, eta pedagogiaren, soinuaren eta poesiaren alorretako ikerlaria. Egunkarietan, eskola liburuetan eta bildumetan argitaratutako ipuin eta poemen autorea. Antzerkigintzan ere egin du lana, jantzkerak eta eszenografiak prestatzen. Montevideo hirian bizi da 2004az geroztik, eta han fundatu eta zuzendu du Gato Peludo elkarte kulturala, zeinaren bibliotekak La *Hormiguita Viajera* saria jaso baitu. Graffiti saria era jaso dute 2011ko umeentzako musika diskorik hoberenari. Gaur egun beste proiektu bat zuzentzen du, *Dragón Dorado* deritzana, literatura, musika eta ikuste-arteak konbinatzen dituen saiakera ludikoa.
http://www.natachaortega.com

## Lucía Franco

(Paysandú, Uruguai, 1980)
Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea, Montevideoko ORT Unibertsitatean lizentziatua. Pintura, marrazki eta argazkigintza ikastaldiak ere egin zituen. Artista lantokitan, publizitate agentziatan eta editorial bateko arte zuzendari lez egin du lana. Aldi batez Estatu Batuetan bizi ondoren, sorterrira itzuli eta ilustrazioak egiten ditu. Bere obrak erakutsiak izan dira Uruguain, Argentinan, Estatu Batuetan eta Espainian. Liburuak, diskak eta umeentzako ekoizkinak ilustratu ditu Ameriketako eta Europako enpresentzat.
http://www.luzdeluciernaga.com


www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com
soltxate@pamiela.com